


Frakez eta Jakitez

Lehen Euskal Ikasketen Biltzarra. Oñatin, 1918an

Eusko Ikaskuntzaren Mediatekatik jasotako argazkia.



1918ko irailaren 8ko arratsaldean amaitu zen Oñatiko Foruen plazan astebete lehenago Oñatin bertan hasi zen Lehen Euskal Ikasketen Biltzarra. Frakez jantzita dantzatu zuten hainbat diputatuk ohorezko aureskua, argazkiko Pedro Laskibar Larreta tolosarra buru zutela, 1918ko urtarriletik aurrera landuz joan zen ekimenari amaiera emateko. Angel Apraiz Buesa irakasleak euskal unibertsitatearen alde eginiko aldarrikapenarekin bat eginik, lau euskal diputazioek instituzioen babesa eman zioten biltzar horri. Alde horretatik arrakasta itzela lortu zen: zenbait apezpiku, 4 aldundietako ordezkariak eta Alfontso XIII.a erregea ere Oñatira joan baitziren.

Dena den, garrantzitsuena zera izan zen: eguneroko lanari ekin ziotenek jorratu zituzten eremu zientifikoak. Euskal unibertsitatea amets zutelarik, 783 biltzarkide euskal ikasketen egoera aztertzen aritu ziren, hezkuntza, historia, arraza, hizkuntza, artea eta zientzia soziopolitikoa deitu ataletan. Oñatiko antzinako unibertsitateko geletan, euskal gaietan XIX. mendetik zetozen jakitunen gerizpean, horrelako ikasketei bultzada berritzailea eman nahi zieten Barandiaran, Eleizalde, Urabaien eta Apraiz bezalako ikertzaile-irakasle gazteek, baita goreneko esparru akademikoan ere. Biltzarraren helburu-iparrak, hau da, Unibertsitatearenak, 1936 arte erdietsi gabe iraun zuen arren, euskal kulturan ordutik aurrera zeresan izugarria izanzen zuten bi erakunde sortu ziren «asmoz eta jakitez» jarduteko: Eusko Ikaskuntza, Oñatiko biltzarrean bertan, eta Euskaltzaindia, 1919an.

● Josu Chueca